

9. AKTA

2002ko uztailaren 29an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

NON: Pasaiako Hirian eta Pasai San Pedroko Udal Aretoan.

DATA: Bi mila eta biko uztailaren hogeita bederatzian.

AZALDUAK: Joseba Xabier Portugal Arteaga, j.

Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.

Obdu Lorenzo de Dios a.

Lendakaria: Joan Karlos Alduntzin Juanena j.

Lehenengo deialdian eta Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian bildu dira goian aipatu zinegotziak Joseba Belaustegi Cuesta Jaun Idazkaria bertan delarik, Gobernu Batzordea ospatzeko horretarako egindako deialdiaren arabera. Ez du agertu ezin etorria Anjel Ouviaña Vidal zinegotzi jaunak (arauzko oporretan aurkitzen delarik).

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea osatzeko behar hainbat partaide agertu dela batzarraldia irekitzat eman du 18:00etan, ondoren Gaizerrendako puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko 8. akta 2002ko ekainaren 20koa irakurri eta onartzea.

Atalburuan aipatzen den akta bertakoen kontsiderazioan jarririk, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du bere osoan ontzat eman eta dagokion Akta Liburuan transkribatzea.

2.- 02/8. kontu fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo kontu-fakturak:

8/02 zka.

Zenbatekoa: 279.274,53 euro (BERREHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO).

3.- 15. ziurtagiria: "Ulia Etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko" obrarena.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, eta Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

15. zka.

Obra: "Ulia etorbidea eta Azkuene kalearen arteko konexio-biala".

Obra-zuzendariak: Eduardo Satostegi j. (Eraiki, S.L.).

CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HIRU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMABI ZENTIMO (23.574,72 euro).

D-1497/01 Disposamenduaren kargura.

4.- 1. ziurtagiria: lurrak egonkortu eta bizilagunentzako eta eraikinarentzako arriskua kentzeko obrak, Azkuene, 42, Trintxerpe.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, eta Udal Aparejadoreak aldeko txostena aurrez emanik, erabaki du hurrengo ziurtagiria onartzea:

2 zka.

Obra: “Lurrak sendotzeko eta jendearentzat eta eraikinarentzat arriskuak ekiditeko obrak Azkuene kaleko 42an – Trintxerpe”.

Obra-zuzendariak: KEMEN, ESTUDIOS Y PROYECTOS, S.L.

CONSTRUCCIONES VALERIANO ARRAECHEA, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BOST MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEI ZENTIMO (5.849,40 uro).

D-748/02 eta D-749/02 disposamenduaren kargura.

5.- Gizarte Egoera Larrian daudenentzako dirulaguntzak Udalaren esku daudenak. 3/02 proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2002ko uztailaren 9an egindako proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 29.982,17 euroko inportez. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-890/02 Baimenduaren kargura.

6.- Pasaia-Lezo Lizeoari dirulaguntza.

Kultura eta Hezkuntzako Zinegotzi-Delegatuak 2002ko uztailaren 2an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

PASAIA-LEZO LIZEOARI 55.716 euroko kantitatea abonatzea, aipatu Ikastetxeak eta Pasaiako Udalak 2001eko uztailaren 24ean suskribatutako akordioan ezarritako kantitatearen lehenengo parteari dagokiona.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko 05-481-422-00-02 partidaren eta A-879/02 Baimenduaren kargura.

7.- Pasaiako Antzerki Tailerrarekin hitzarmena: Ihardueren subentzioa.

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2002ko uztailaren 1eko diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Pasaiako Udalaren eta Pasaiako Antzerki Tailerraren artean suskribaturiko Konbenio Erantsia onartzea hurrengo aldaketekin:

Bederatzigarren klausula:

- lehenengo paragrafoan, “anulazio” dioen lekuan “deuseztea” esan behar du.
- bigarren paragrafoan, “Pasaiako Antzerki Tailerrak eskatuta anulatuko balitz” dioen lekuan “Pasaiako Antzerki Tailerra balitz salatuko lukeena” esan behar du.
- hirugarren paragrafoan, “Udala balitz, ordea, konbenioaren anulazioa eskatuko lukeena” dioen lekuan “Udala balitz, ordea, bere deuseztea eskatuko lukeena” esan behar du.

Hamargarren klausula: kontratuaren indarra urtebeterako ezarriko da eta periodo berdinez luzatu ahalko da eta luzaoen automatikoaren aipua kendu egingo da.

Hamabigarren klausula: “Liskar Auzi Administratiboaren epaitegiaren esku jarriko dira” dioen lekuan esan behar du: “Liskar Auzi Administratiboaren Epaitegi eta Auzitegien esku jarriko da”.

BIGARRENA.- Bere indarrez ontzat ematea 3.087 euroko subentzioa aipatu Tailerrak egingo dituen programen ordainetan.

HIRUGARREN.- Ordainketa hurrengo eran egingo da:

1. ordainketa: 1.543 euro Konbenioa sinatzean.
2. ordainketa: 1.543 euro 2002ko abenduan.

Urte osoan zehar emandako zerbitzuen txosten zehatza egitekotan.

Hau guztia indarrenago udal-aurrekontuko 05-226-451-10-06 partidaren eta A-906/02 Baimenduaren kargura.

LAUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

ERANSKINA

“Pasaiako Udalerrian, bi mila eta biko urtarrilaren 29an.

Ondoko hauek bildurik:

Alde batetik, Juan Karlos Alduntzin Juanena jauna, Pasaiako Udaleko Alkatea.

Eta bestetik, Miguel Galindo Bergara jauna (nortasun-zenbakia: 14.552.256), Pasaiako Antzerki Tailerreko zuzendaria.

Bi alderdiok, honako hitzarmen hau gauzatzeko elkarri aitortzen dioten beharrezko legezko gaitasuna dutela, libreki eta beren kabuz, ondoko hau adierazten dute:

Ikusirik Antzerki Tailerra garrantzizko erakundea dela Pasaiako kultur egitaraua eta batez ere, antzerki egitaraua aurrera eraman ahal izateko, eta onuragarria dela Udalaren eta elkarte horren artean elkarlana bideratzea bi erakundeentzat eta oro har kulturarentzat, Pasaiako Udalaren eta Pasaiako Antzerki Tailerraren artean honako hitzarmen hau gauzatzeko erabaki dutela, ondoko klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA: Elkarlaneko hitzarmen hau urteko programen hitzarmen batean zehaztuko da.

BIGARRENA: 2002ko programen hitzarmen honen arabera, Pasaiako Antzerki Tailerrak ondoren zehazten diren programa hauek garatuko ditu:

- Umorezko Antzerki Jardunaldiak
- Txotxongilo jaialdia
- Udaletxeko Kultura Sailak antolatutako antzerki saioak
- Udaletxeko Kultura Sailak zuzenean antolatutako musika saioak
- Bi alderdiek adostuta, haren esku utzitako kultur jarduerak

HIRUGARRENA: Pasaiako Antzerki Tailerra, programa hauek modu egokian gara daitezten, ondoren zehazten diren zerbitzu hauek ematera beharturik geratzen da:

- Ekitaldietan parte hartuko duten taldeei harrera egitea
- Beharrezkoak izango diren ekipoen instalazioa
- Muntaketa eta desmuntaketa lanetan aritzea
- Udaletxearen soinu, argi eta horrelako ekipoen mantenimenduaz arduratzea
- Sarreraren salmenta

LAUGARRENA: Esandako programak garatzearen truke, Pasaiako Antzerki Tailerrak 3.087 eurotako dirulaguntza jasoko du.

BOSGARRENA: Urte bukaeran, Pasaiako Antzerki Tailerrak txosten bat aurkeztu beharko du. Txosten horretan, urtean zehar egindako zerbitzu guztiak zehaztuko ditu.

SEIGARRENA: Pasaiako Udalak ordainketa bi zatitan egingo du, honela banaturik:

- 1. zatia: Akordio hau sinatzerakoan 1.543 euro. 1.543 €.
- 2. zatia: 2002ko abenduan 1.543 euro. 1.543 €.

ZAZPIGARRENA: Programen hitzarmen honen balioaldia 2002ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artekoa izango da, bi egunok barne.

ZORTZIGARRENA: Honako hitzarmen honen izaera eta xedea dela medio, ulertzen da Udalaren eta aipaturiko programa horiek gauzatuko dituen Pasaiako Antzerki Tailerreko arduradunen artean ez dagoela honako baldintza hauetatik ondorioztatzen direnez bestelako mendekotasuneko loturarik, eta, beraz, haiek ezingo dute udaleko funtzionarioaren izaera bereganatu, ez eta enplegatu finko, aldi bateko, ordezkotako eta abarrenik ere, ez Tokiko Administrazioako funtzionarioei buruzko xedapenen arabera, ez eta Lanaren Legearen arabera ere.

BEDERATZIGARREN: Honako hitzarmen hau ez betetzeak berau deusezaraztea eragingo du baldin eta berau betetzen ez duenaren aurkako alderdiak hala eskatzen badu.

Pasaiako Antzerki Tailerra balitz salatuko lukeena, elkarte horrek ordura arte garatutako programei dagokien zati proportzionala kitatzeari ekingo dio Udalak.

Udala balitz, ordea, bere deusezteak eskatuko lukeena, Pasaiako Antzerki Tailerrak hura bete ez duelako, Kultura Batzordeak zehaztu beharko duen sartzioa ezarriko zaio, ez-betetze horretatik eratorritako kalteak kontuan hartuta.

HAMARGARRENA: Hitzarmen honek, periodo berdinez luza daitekeen urte bateko iraunaldia izango du.

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmen hau egikaritzeko sor litekeen edozein zalantza, eta aurreko klausuletan aurreikusitako guztia ere, Udaleko Kultura Batzordeak ebatziko du.

HAMABIGARRENA: Norberaren foruari uko eginez, honako agiri honen sinatzaileek, berorretatik suerta litekeen edozein arazo ebazteko, Liskar Auzi Administrazioaren Epaitegi eta Auzitegien esku jarriko da beren buruak.

Eta termino horietan, hitzarmengileek idatziz jasotzen dute honako agiri hau, edukia baieztatzen eta berresten dute, eta bi kopian eta ondorio bakarretarako sinatzen dute, Pasaiako, bi mila eta bateko urtarrilaren.

PASAIKO ALKATEA

PASAIKO ANTZERKI TAILERREKO
ZUZENDARIA

Sin: Juan Carlos Alduntzin Juanena

Sin: Miguel Galindo Bergara”

8.- Kontseilu Eskolarrari 1. seihilekoaren dirulaguntza.

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2002ko uztailaren 11ko diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Ondoren aipatzen diren Ikastetxeei 2002ko 1. semestreako dagozkion subentzioak ematea:

- KARMENGO AMA H.I 32.069,27 euro
- PASAIA-LEZO LIZEOA..... 15.999,49 euro
- KARMENGO AMA H.I. GURASO ELKARTEA..... 1.240,73 euro

GUZTIRA 49.309,49 euro

Hau guztia 05-481-422-00-01 partidaren eta indarreango udal aurrekontuko A-908/02 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekursoekin.

9.- Kirol jardueretarako dirulaguntzak eskatu eta emateko irizpideak eta oinarriak.

2002ko ekainaren 10ean Kirol Patronatuko Lehendakariak egin proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

“Gazteria eta Kirol Alorreko jarduerak egiteko subentzioak eskatu eta emateko kriterio eta oinarriak” ontzat ematea, behar bezala diligentziaz espedientean aurkitzen dena.

10.- C.D. Trintxerperi dirulaguntza 75. urteurrena ospatzeko.

Gai hau mahai gainean geratu da hobeto aztertzeko.

11.- C.A. Trintxerperi dirulaguntza XIV. Mountain Bike froga ospatzeko.

Gai hau mahai gainean geratu da hobeto aztertzeko.

12.- Ondare erantzukizunezko hainbat erreklamazio.

A) Esperantza Martinez Perez andreak egindako erreklamazioa.

Ikusirik ESPERANTZA MARTINEZ PEREZ ANDREAK EGIN erreklamazioa 2002ko ekainaren 13koa, Guria tabernaren parean Arrandegi kaleko ustezko erorketari buruzkoa, ebakuntza kirurgikoa eskatu zuten zauriak eragin zizkona ondorioak utziz.

Gertatuei buruz Obra eta Zerbitzuetako Sailak informaturik Inspektore-buruak 2002ko uztailaren 2an emandako txostenaren bidez, non ezeztatu egiten den kausalitate-erlazioa espaloia-egoera eta dirudienez erreklamatzailerak izan zuen erorketaren artean.

Seguros Caser konpainiari espedientearen berri emanik, Udalak talde aseguratzailerak honekin baitzuen erantzukizun zibila kontratatua gertatuak jazo zirenean, konpainiak arbuia egin du erantzukizuna, zeren eta bere ustez erreklamatzailerak ez baititu demostratu ez erorketako lekua ez eta erorketaren eta udal zerbitzuen arteko kausalitatea ere.

Ikusirik Udaltzaingoko Ofizial Buruak 2001eko otsailaren 2an luzatutako txostena, non esaten den erorketaren lekukorik ez dagoela.

Kontuan izanik, dena dela, baldosen 8 mm-ko aldea ez dela nahikoa aipatu erorketaren zergatia izateko, eta erreklamatzailerak berak ere ez du argitu jasandako kaltearen eta udal-zerbitzuen funtzionamenduaren arteko lotura kausala, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- ESPERANTZA MARTINEZ PEREZ andreak Pasaiako Udalerri honetako Arrandegi kalean 2001eko urtarrilaren 31n 18:50ak inguruan erori egin zela eta jasandako lesio eta ondorioen ordain gisa egindako 30.050,61 euroko erreklamazioa gaitzestea, aipatu kaleko Guria tabernaren parean dauden baldosen egoera txarra dela eta, zeren eta espedientearen kreditatu baita baldosen egoera egokia eta erreklamatzaileraren partetik erabateko frogarik eza erori zela eta kalearen egoera eta erorketaren arteko lotura kausala justifikatzeko.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezko errekurtsoekin.

B) Teofila Manzanal Lastra andrearen erreklamazioa.

Ikusirik TEOFILA MANZANAL LASTRA andreak 2002ko maiatzaren 28an egindako erreklamazioa Pasaia udalerrri honetako Motor Diesel enpresaren parean Portuko Zonaldean jarritako bi hesi lotzen zituen balizamendu-zintarekin dirudienez erori zelako urte bereko otsailaren 14an, traumatismoa eraginez ezkerreko belaunean errotula hautsiz eta aparatu geldiarazlea behar izanez, baja medikoa izan duelarik otsailaren 14tik maiatzaren 20 arte, 4.305,08 euro erreklamatzeko dituelarik guztira.

Ikusirik Udaltzaingoko Ofizial-buruak 2002ko martxoaren 8an luzatutako txostena, non esaten den ezinezkoa dela gertaerak erreklamatzailerak esanda bezala jazotzea, zeren eta balizatzeko zintak andrearen beraren zentzuan baitzeuden eta nolana ere zintekin estropozo egin bazuen ere, pabilioien zonaldera galtzada gurutzatzean izan behar zuen, zinta zeharka gurutzatzean, eta hau egiteko maniobra ez litzateke bidezkoa, zeren eta galtzada oinezkoen igarobidean gurutzatu behar baitzuen bertatik gertu.

Allianz Aseguru Konpainiari jakitera emanik, erantzukizuna baztertu egiten du zeren eta erantzukizuna zaurituak berak baitu eta ez beste inork, zeinak hala nahita gurutzatu baitzuen hesien artean galtzada oinezkoen igarobidean egin ordez.

Kontuan izanik erreklamatzailerak ez duela frogatu jasandako zaurien eta Udalaren funtzionamenduaren arteko lotura kausala, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

TEOFILA MANZANAL LASTRA andreak egindako erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN .- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioekin.

C) Alberto Alicante Santiago jaunak egindako erreklamazioa.

Ikusirik ALBERTO ALICANTE SANTIAGO jaunak egindako erreklamazioa SS-7121-Z matrikula duen ibilgailuak jasandako kalteak direla eta, 2002ko uztailaren 2an Luzuriagako fabrika zaharrear dagoen parkineko zulo batean gorpila sartzeagatik.

Ikusirik Udaltzaingoak egindako agiria gertatuak egiaztatuz.

Ikusirik ibilgailuaren kalteak konpondu izanaren idazkiarekin faktura 188,47 eurokoa, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- ALBERTO ALICANTE SANTIAGO jaunaei ordaintzea 188,47 euro bere jabegoko ibilgailuan udal zerbitzuen funtzionamendu okerragatik izandako kalteak abona ditzan eta, zehazki, Pasai Antxoko Luzuriagako fabrika zaharretan dagoen egoera txarragatik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

13.- Obra baimena, Lezo-Bidea, 14-3. B

Oskar Zabala Criado Jaunak 2002-5-27ko datan OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIA eskatu zuen, bere etxebizitzaren kanpoko leiho-arotzia aldatzeko (Pasai Donibaneko Lezo Bidea 14 – 3. B). Zehazki, bost leiho zureria aldatzeko, barrutik txuri eta kanpotik mahagoni kolorekoak: leiho handi bat 1950 x 1650 mm-koa, orri bakarreko eta bi orri finkodun bi leihorekin; ate bat 1250 x 2175 mm-koa, bi orri irekigarriekin; leiho bat 1250 x 1265 mm-koa, bi orriekin; leiho handi bat 1950 x 1700 mm-koa, bost orriekin, horietako bi finkoak; eta leiho bat 600x1400mm.-koa, orri txuri batekin,

Udal teknikariak eskaera honi buruzko kontrako txostena egin duela ikusirik, ikuskatze-bisita egin ondoren (2002-05-30); bertan adierazten denez, eskatutako obrak eginda daude.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Oskar Zabala Criado Jaunari OBRA TXIKIAK EGITEKO LIZENTZIA UKATZEA, hirigintzako arautegiaren arabera, eraikineko arotziaren jatorrizko itxura ez duelako mantentzen, lau orritakoak ziren eta irekigarriak diren bi orri jarri baititu barrutik txuriak eta kanpotik mahagoni kolorekoak.

Ukatzen zaion lizentzia: Lezo Bidea 14 – 3. B-n bost leiho jartzeko, barrutik txuri eta kanpotik mahagoni kolorekoak: leiho handi bat 1950 x 1650 mm-koa, orri bakarreko bi leihorekin eta bi orri finkoak; ate bat 1250 x 2175 mm-koa, bi orri irekigarriak; leiho bat 1250 x 1265 mm.-koa, bi orriekin; leiho handi bat 1950 x 1700 mm.-koa, bost orriekin, horietako bi finkoak; eta leiho bat 600 x 1400 mm-koa, orri txuri batekin.

BIGARREN.- Hala ere, baimena eman ahalko zaio, baldin eta leihoak lau orritakoak jarri eta eraikineko arotziaren jatorriko itxura mantentzen badu.

HIRUGARREN.-Udal tasak likidatzea, behar bezala jakinarazi eta gero.

LAUGARREN.- Interesatuari ebazpen hau jakinaraztea, honen kontra jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

14.- Villa Ana Mary Konpentsazio Proiektuaren behin betiko onespena.

Ovidio Guerecacheverria Gurruchaga y Otros” Ondasun Komunitateak 2002ko maiatzaren 20an aurkeztu zuen “Villa Ana Mary” 2.08.06 Exekuzio Unitateari dagokion Konpentsazio Proiektua eta Alkateak hasierako onarpena ekainaren 20an eman zion.

Ikusirik hamabost egunez jendeaurrean egon dela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2002ko uztailaren 5ean argitaratu eta gero. Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Udal teknikariak aldeko txostena egin duela, interesdunek Udalak eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Horiek horrela eta kontuan hartuta abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretu bidez onartutako Hirigintza Kudeaketaren Araudiaren 174. Artikulua eta hurrengoa,

Gobernu Batzordeak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- “Villa Ana Mary” 2.08.06 Exekuzio Unitateari dagokion jabe bakarreko Konpentsazio Proiektuari behin betiko onespena ematea, ondorengo baldintzekin:

1)

- Zuzentzea dokumentuan egiten den huts egitea:
Zortzen den b) partzelaren deskribapenean a) dela adierazten dela eta b) jarri beharko luke.

2)

Obra baimena lortu baino lehenago jabetzak hirigintza probetxamenduaren %10 ordaindu beharko dio Udaletxeari Udaletxearekin adostu zuen hitzarmenaren arabera.

Proiektua “Ovidio Guerecacheverria Gurruchaga y Otros” Ondasu Komunitateak aurkeztutakoa da, eta Elena Etxegoyen Gaztelumendi Letratuak idatzitakoa da.

BIGARRENA.- Kontuhartzaileak likidatu behar dio konpentsazio proiektua tramitatzegatik dagokion tasa.

HIRUGARRENA.- Konpentsazio Proiektua Jabetzaren Erregistroan inskribatzea eta Erregistratzaile jaunari ondorengoa eskatzea: Exekuzio Unitateko lur-zatiak afektatu ditzala

urbanizazioaren likidazio-kontuaren saldoa bermatzeko. Behin-behineko saldoa 90.000 Eurokoa da. Hori dena Hirigintzako Kudeaketari buruzko Araudiaren 126. Artikuluak dioenari jarraituz.

LAUGARRENA.- Onespen honek balioa izateko interesdunek Udalari aprobetxamenduaren %10aren monetarizazioa ordaindu behar diote, hau da, larogeita lau mila eta ehun eta berrogeita bat euro eta hirurogeita hamar zentimo (84.141,70 euro) sinatutako Hirigintza Hitzarmeneko LAUGARREN estipulazioari jarraituz.

BOSGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

15.-Exekuzio unitatea egokitzea Torreatze 1 eta 2.

Kontutan izanik Alkateak 2002ko maiatzaren 2ko ebazpenaren bitartez hasierako onarpena eman ziola San Pedroko Torreatze 1 eta 2 izeneko Jarduketa Unitatearen Mugen-Egokitzapenari, hain zuzen ere, Iruresoro, S.L.-k aurkeztu eta José M^a Alonso Arburuk idatzi eta sinatutako proposamenaren arabera.

Ikusirik alegazio epea 2002ko maiatzaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hasierako onarpenaren iragarkia argitaratu eta gero hasi zela eta ez dela inolako alegaziorik egin.

Ikusirik indarrean dagoen Hirigintza Kudeaketarako Araudiaren 38.2 artikuluak jarduketa unitateen aldaketa arautzen duela. Kasu honetan, halere, ez dela eremuaren aldaketa, egokitzapen bat baizik.

Gobernu Batzordeak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Behin betiko onartu Torreatze 1 eta 2 Jarduketa Eremuaren Mugen –Egokitzapenari, hain zuzen ere, Iruresoro, S.L.-k aurkeztu eta José M^a Alonso Arburuk idatzi eta sinatutako proposamenaren arabera.

BIGARRENA.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Hirigintza Kudeaketarako Araudiaren 38.1.d) artikuluak dioenari jarraituz.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau interesdunei jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

16.- Euskararen familia bidezko transmisioa programa barruan bekak ematea.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Euskarako Batzordeko Lehendakariak 2002ko uztailaren 18an egindako proposamenez,

ERABAKI DU

“Euskara Familien Bidez transmititzea” programaren barruan akordio honetan jasotzen diren bekak Euskara Batzordeak 1996ko irailaren 11n jarritako kriterioen arabera ematea (%85eko asistentzia gainditzea eta matrikularen %60 ordaintzea), 913,60 euroko inportez:

GIMON SERRANO, JULIA	57,10 euro
MARTINEZ SANCHEZ, EDURNE	57,10 euro
ZUBILLAGA TELLETXEA, PILAR	57,10 euro
ASENSIO AMIGORENA, MIGUEL A.	57,10 euro
BARROSO BONAETXEA, MARISA	57,10 euro
AIZPURUA MARITXALAR, PILAR	57,10 euro
MATEO TOLEDO, DIEGO	57,10 euro
MOREDA ARTOLA, MAIKA	57,10 euro
SAINZ RODRIGUEZ, LIBIA	57,10 euro
ULLOA RODRIGUEZ, M. JOSE	57,10 euro
ALDAO GAGO, IMANOL	57,10 euros
CINTERO PIZARRO, JOXAN	57,10 euros
EZKURRA FOUNTAIN, M ^a TERESA	57,10 euros
GARMENDIA GARCIA, ESTHER	57,10 euro
LOPEZ DE ALDA RAMOS, ANE	57,10 euro
ESTEBAN DONAIRE, ROSA M ^a	57,10 euro

GUZTIRA 913,60 euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-929/02 Baimenduaren kargura.

- Gaizerrendatik at eta bertako zinegotziek aho batez erabakirik sartzea, hurrengo gaiak aztertu dira:

17.- “Arizabalo Jauregia eraberritzea San Joan kalea, 19 – Pasai Donobane” obraren 5. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

5. zka.

Obra: “Arizabalo Jauregia eraberritzea San Joan kalea, 19 – Pasai Donibane”.

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal (Udal Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea).

TECPROPASA EUSKADI, S.A. (TEUSA) eta CONSTRUCCIONES J. URRACA, S.A. (CJUSA), U.T.E. ARIZABALO enpresa kontratisten alde.

Zenbatekoa: LAUROGEITA BI MILA BEDERATZIEUN ETA HIRUROGEI EURO ETA LAUROGEITA HAMABI ZENTIMO (82.963,92).

A-1624/01 Baimenduaren kargura.

18.- “Murru eta eskailerak eraberritu, konpondu eta sendotzea Azkuene kaleko 42an (Trintxerpe)” obraren 3. ziurtagiria (azkena).

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Udal Aparejadoreak aldeko txostena emanik, erabaki du hurrengo ziurtagiria ontzat ematea:

3. zka.

Obra: “Murru eta eskailerak eraberritu, konpondu eta sendotzea Azkuene kaleko 42an (Trintxerpe)”.

Obra-zuzendariak: KEMEN ESTUDIOS Y PROYECTOS, S.L. (Fernando Pérez de Laka, Ingeniero de Caminos).

EDIFICIOS, VIAS Y PUENTES enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HIRU MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA LAU ZENTIMO (23.787,04).

Indarreango udal-aurrekontuko D-609/02 Disposamenduaren kargura.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 19:00etan bukatutzat eman da batzarraldia, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.